

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2014/15

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

1. maila

**IRAKASGAIA**

25941 - Filosofia eta Gizarte Langintza

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**DESKRIBAPENA**

"Filosofia eta gizarte langintza" irakasgaia Gizarte Langintzako Graduaren baitan ematen da, eta C Moduluari dagokio: "Gizarte langintzaren ardurapeko prozesuak eta arazoak". Lehen mailako derrigorrezko irakasgai bat da (bigarren lau hilabetea), eta 6 kreditu ECTS ditu.

C Modulua bi gaik osatzen dute: Giza garapena (24 ECTS) eta Egitura, desberdintasuna eta gizarte bazterketa (12 ECTS). C Moduluak titulazioaren lehenengo bi ikasturteak barne hartzen ditu, eta horrenbestez oinarrizko prestakuntza eskaintzen die etorkizuneko tituludunei.

Modulu honetako ikasgaiak, gizarte- eta zuzenbide-zientzietakoak gehienak, ondorengoak dira: "Filosofia eta gizarte langintza"; "Antropologia eta gizarte langintza"; "Gizarte langintzarako psikologia"; "Gizarte langintzarako psikologia soziala"; "Soziologia eta gizarte langintza"; "Gizarte egitura eta estratifikazioa". Ikasgai hauen helburua ondorengo auzien inguruko edukiak eta gaitasunak eskuratzea da: giza natura eta bere portaera; portaera horrek egitura sozialekin dituen loturak; gizabanakoen arteko harremanetan sortzen diren zailtasunak eta arazoak (harreman horien testuingurua aintzat hartuz beti ere); haien guztien azterketarako egokia zatekeen metodologikoa zientifikoa.

Moduluak, gainera, jarraian aipatzen diren gaitasunak eskuratzea ahalbidetzen du: izaera instrumentala daukaten gaitasunak (e.g., analisi eta sintesirako gaitasuna, ahozko eta idatzizko komunikazioa, arazoen ebazpena), gaitasun pertsonalak (e.g., lan-taldea, arrazonamendu kritikoa) eta gaitasun sistemikoak (ikaskuntza autonomoa, sormena).

"Filosofia eta gizarte langintza" irakasgaiaren helburu orokorra, bere aldetik, giza naturaz hausnarketa teoriko eta moral bat eskaintzea da. Hein horretan, irakasgaiak gizarte langintza lanbidearen oinarri kritiko, sozio-etiko eta epistemologikoen gaineko funtsezko ezagutzeak eta gaitasunak hornitu nahi ditu ikasleak. Halaz, moduluaren gainerako irakasgaiak bezala, eta batez ere "Soziologia eta gizarte langintza"-k eta "Antropologia eta gizarte langintza"-k bezala, testuinguru sozio-kulturalaren baitako giza portaeraz hausnartu eta ikastea, zein ulermen horren arabera gizarte langintzaren jarduerarako estrategia desberdinak baloratzea du xede.

Edozein kasutan, "Filosofia eta gizarte langintza" irakasgaiari berezkoa zaio langintzaren jarduna sustatzen duten teoriak eta praktikak elikatzen dituzten oinarri kulturalak eta diziplinarrak modu erreflexibo eta kritikoa aztertzea ahalbidetzen duen bigarren ordenuko hausnarketa eremu bat izatea. Horren arabera, gizarte langintzari aplikatutako hausnarketa filosofikoa, gizarte langintzaren funts orokor, edo oinarrizkoen azterketan zentratuko da. Hori dela eta, irakasgaiak gizarte langileen erabakien eta praktiken oinarrian--batzuetan era ezkutuan eta, horrenbestez, kritikatik eta hausnarketatik salbu--aurkitzen diren gizakiari eta gizarteari buruzko zenbait ideia eta ikusmolde identifikatu, interpretatu eta aplikatzeko gaitasunak garatu eta sustatu nahi ditu ikasleriarengan.

**GAITASUNAK**

- G1: Ikasleriarengan pentsamendu kritikorako gaitasuna garatzea, gizarte langintzako etorkizuneko profesional gisa egin ditzaketen argudiaketa-falazia nagusien identifikaziotik eta karakterizaziotik abiatuta. [CM07]
- G2: Etika eta deontologia profesionalaren oinarrizko gaiak identifikatzea, etorkizuneko gizarte langileen erantzukizun soziala indartuz. [CM08]
- G3: Gizakiak testuinguru sozialean duen portaera baldintzatzen dituzten funtsezko osagaiak--izaki biologikoa eta kulturala den heinean--zein osagai horien gaineko oinarrizko paradigma teoriko desberdinak ulertzea. [CM01]
- G4: Ikasleriarengan bere balioak eta eskema kognitiboak identifikatzeko gaitasuna garatzea, etorkizuneko jardun profesionala modu objektiboan eta giza eskubideak errespetatuz burutu dezan. [CM07]

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

## 1. SARRERA: FILOSOFIAREN EKARPENAK GIZARTE LANGINTZARI

- 1.1. Zer da filosofia?
- 1.2. Filosofia: bigarren ordenuko jakintza
- 1.3. Filosofia eta gizarte langintza: oinarrien azterketa

Filosofiaren, zein hark gizarte langintzarentzat (GL) duen garrantziaren karakterizazio labur bat eskaintzen da, GL-ren oinarri etiko eta epistemologikoak aztertzearen garrantzia ardatz hartuta.

## 2. FILOSOFIA GIZARTE LANGINTZAREN IKASKETETAN: PENTSAMENDU KRITIKOAREN GARRANTZIA JARDUERA PROFESIONALARENTZAT

- 2.1. Filosofia eta pentsamenduaren kalitatearekiko konpromisoa
  - 2.1.1. Filosofia pentsamendu kritiko lez
  - 2.1.2. Pentsamendu kritikoaren beharra gizarte langintzan
- 2.2. Pentsamendu kritikoa eta gizarte langintza: argudiaketaren oinarriak
  - 2.2.1. Logika, dialektika eta erretorika
  - 2.2.2. Logikaren oinarrizko kontzeptu batzuk
    - 2.2.2.1. Argudioen oinarrizko osagaiak: premisak eta ondorioa
    - 2.2.2.2. Argudiaketaren forma eta edukia (egia eta baliozkotasuna)
    - 2.2.2.3. Argudio inductiboak eta deductiboak
  - 2.2.3. Argudiaketaren falaziak
    - 2.2.3.1. Falazia formalak
    - 2.2.3.2. Falazia informalak
      - 2.2.3.2.1. Garrantziaren printzipioa hausten duten falaziak
      - 2.2.3.2.2. Argitasunaren printzipioa hausten duten falaziak
      - 2.2.3.2.3. Nahikotasunaren printzipioa hausten duten falaziak

Pentsamendu kritikoak GL-rentzat duen garrantziaren berri ematen da, argudiaketa-estrategia sendoen identifikazioa eta ulermena determinatzen dituzten oinarrizko kontzeptuen azterketatik abiatuta--esparru formalean zein informalean--, eta erreferentzia moduan GL-ren praktikarekin lotura daukaten kasuak eta egoerak hartuz.

## 3. ZIENTZIAREN DIMENTSIO MORALA: ETIKA ETA GIZARTE LANGINTZA

- 3.1. Etikaren aztergaia
  - 3.1.1. Morala eta etikaren arteko oinarrizko bereizketa
  - 3.1.2. Gizakiaren dimentsio morala
  - 3.1.3. Etika eta jakintza praktikoak
- 3.2. Arau moralak eta bestelako arauak
  - 3.2.1. Morala eta zuzenbidea
  - 3.2.2. Morala eta erlijioa
  - 3.2.3. Morala eta harreman sozialen arauak
- 3.3. Ongia eta gaizkia argituz: zenbait proposamen etiko
  - 3.3.1. Etika deontologikoa (betebeharrak eta eskubideak)
  - 3.3.2. Etika utilitarista (ondorioak)
    - 3.3.2.1. Ekintzen utilitarismoa eta arauen utilitarismoa
  - 3.3.3. Bertuteen etika
    - 3.3.3.1. Zainketaren etika
  - 3.3.4. Botereari buruzko azterketa
- 3.4. Gizarte langintzaren printzipioak
  - 3.4.1. Sarrera: benefizentzia, autonomia, eta justizia
  - 3.4.2. Benefizentzia eta autonomiaren arteko harreman zailak
    - 3.4.2.1. Benefizentzia paternalista
    - 3.4.2.2. Benefizentzia anti-paternalista
    - 3.4.2.3. Benefizentzia ez-paternalista
      - 3.4.2.3.1. Konfidentziasuna, eta informatutako baimena
  - 3.4.3. Justizia printzipioa gizarte langintzan
    - 3.4.3.1. Gizarte langintzaren izaera eraldatzailea

Etikaren eta moralaren oinarrizko kontzeptuak aurkezten dira, eta teoria etiko desberdinak aztertu, GL-ren praktikari loturik doazkion aspektu eta dilema etikoen deskribapena eta analisisa egitearekin batera.

## 4. EZAGUTZAZKO JARDUERA ZIENTZIAN: EPISTEMOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA

- 4.1. Sarrera: teoriaren garrantzia gizarte langintzan
- 4.2. Gizakia: natura eta kulturaren artean

- 4.2.1. Gizakiaren oinarriko ezaugarri ebolutiboak
- 4.2.2. Abere kulturala
  - 4.2.2.1. Sinboloa eta interpretazioa
  - 4.2.2.2. Herentzia eta moldatze kulturalak
- 4.3. Gizarte zientzien epistemologia
  - 4.3.1. Objektuak eta subjektuak
    - 4.3.1.1. Perspektiba objektiboa
    - 4.3.1.2. Perspektiba subjektiboa
  - 4.3.2. Ordena eta gatazka gizartean
    - 4.3.2.1. Erregulazioa eta ordenaren perspektiba
    - 4.3.2.2. Gatazka eta aldaketaren perspektiba
- 4.4. Gizarte langintzaren paradigmen taxonomia
  - 4.4.1. Paradigma funtzionalista
    - 4.4.1.1. Gizarte langintza konduktista
  - 4.4.2. Paradigma interpretatzailea
    - 4.4.2.1. Erabiltzailean zentratutako gizarte langintza
  - 4.4.3. Paradigma humanista erradikala
    - 4.4.3.1. Gizarte langintza praktika erradikala lez
  - 4.4.4. Paradigma estrukturalista erradikala
    - 4.4.4.1. Gizarte langintza marxista

GL-ren oinarri epistemologikoak naturala eta kulturala den gizakiaren ikuspegi batetik aztertzen dira, hau da, giza portaera eta bere ulermena ulertzeko derrigorrez aintzat hartu beharra dagoen dimentsio hermeneutiko-sinbolikoa duen gizakiaren ikuspegitik. Hortik abiatuta, GL-ren perspektiba, helburuak eta bitartekoak baldintzatzen dituzten proposamen teoriko desberdinak aurkezten dira.

## **METODOLOGIA**

### **METODOLOGIAK**

- Eskola magistralak (M)
- Gelako praktikak (GA)
- Ikaslearen lan autonomoa
- Banakako eta taldeko tutoretzak

Gelako Praktiketari (GA) irakaskuntza Metodologia Aktiboak aplikatuko dira:

- Arazoen konponbidea oinarrian duen metodologia, taldeka, edo lankidetzan garatzekoa (i.e., argudiaketa-falazien identifikazioa eta azalpena [2. atala]; dilema etikoen gaineko "role-playing" jarduerak [3. atala]).
- Arazoen konponbidea oinarria duen metodologia (kasu-azterketa), banaka garatzekoa (i.e., gizarte langintzaren kasu-azterketa baten--hots, esku-hartze baten--birformulatze kritiko-kontzeptuala [4. atala]).
- Taldeko lan baten egintzan oinarritutako metodologia (i.e., gizarte langintzaren teoria nagusien sailkapen epistemologikoa jasotzen duen diagrama egitea).

### **PRESTAKUNTZA-JARDUERAK**

- Azalpen teorikoak
- Taldeko lana
- "Role-playing"
- Dokumentuak irakurtzea eta aztertzea
- Bateratze-lanak
- Aplikazio-jarduerak

Amaiera-Oharra: GAUR-ek ezartzen duen gehiengo karaktere kopurua dela eta, irakaskuntza moten eta gaitasunen garapenerako aurreikusitako jardueren azalpen zehatza "Irakasgaiaren-Taldearen Irakaskuntza Gida" dokumentuan eskaintzen da (5.2. atalean).

## **IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	45		15						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenaailuko p.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### EBALUAZIO-METODO ETA -IRIZPIDEAK

Irakasgai honetan bi ebaluazio metodo, edo sistema daude:

1) Etengabeko ebaluazioa: sistema honek banaka egin beharreko idatzizko bi azterketa (%40), bi taldeko lan (%40), eta banakako lan bat (%20) barne hartzen ditu.

Irakasgaia gainditzeko, modu independentean ebaluatuko diren bost jarduera horietatik lau gainditu beharko dira gutxienez (hau da, 5eko bat edo nota altuagoa atera beharko da horietako bakoitzean).

Irakasgaia gainditzeko beharrezkoa izango da klaseen %75ean gutxienez parte hartzea.

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzeko beharrezkoak diren goian aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleek, gai guztiak jasoko dituen idatzizko froga egin beharko dute ez-ohiko deialdian, nahiz eta idatzizko froga partziala bat edo batzuk gainditu izan. Azterketa horrek idatzizko froga bakarra barne hartuko du.

Ikasleak eskubidea du ebaluazio-deialdiari uko egiteko, beti ere uko egite hori 5. irakaskuntza-astea hasi aurretik ematen bada. Kasu horretan, "Ez Aurkeztua" izango du bere amaierako notan.

2) Amaierako ebaluazioa: sistema honek, graduko eta lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegiak (2014/15 ikasturtea) bere 43. Artikuluan jaso eta erregulatzen duenak, ondorengo ezartzen du:

"Ikasleari, justifikatutako arrazoiengatik (lanari lotutako arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, ume harrera edo hiru urtetatik beherako seme-alaba edo minusbaliatutako pertsonak izatea bere kargura; % 33ko ezintasun maila edo handiagoa duten ikasleak; goi-mailako kirolaria; bidaiak edo denbora asko eskatzen duten kultur eta arte-jarduerak; goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna; eta mota desberdinetako karguekiko bateragarritasuna: kargu politikoak, sindikalak, ikasleen ordezkariak, elkarteetakoak, GKEkoak edo beste batzuk) ezin bazaio egin etengabeko ebaluazioa, bukaerako proba bakarria egingo zaio, irakasgaiko jakintzak eta gaitasunak bereganatu dituela egiazta dezan. Proba horrek, egiten den moduan egiten dela, irakasgaiko notaren % 100 balio beharko du.

Irakasgaiaren ezaugarri eta edukiengatik irakasgaiaren beste alderdi batzuk gainditu behar badira, praktikak esaterako, bukaerako probaz gain kontuan hartuko beharko da beste alderdiak gainditu diren ala ez".

Amaiera-Oharra: GAUR-ek ezartzen duen gehiengo karaktere kopurua dela eta, irakaskuntza moten eta gaitasunen garapenerako aurreikusitako jardueren azalpen zehatza "Irakasgaiaren-Taldearen Irakaskuntza Gida" dokumentuan eskaintzen da (6. atalean).

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodle plataforma birtualean ikasturtean zehar argitaratuko diren materialak ("power point"-ak, ariketak, eskemak, testuak, etabar).

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

- Ayala, F. J., 1980, Origen y evolución del hombre, Madril: Alianza, 1995.
- Beckett, C., Maynard, A., 2013, Values and Ethics in Social Work (bigarren argitaraldia), Londres (et al.): Sage.
- Benton, T., Craib, I., 2001, Philosophy of Social Science. The Philosophical Foundations of Social Thought, Houndmills, Basingstoke, Hampshire; New York: Palgrave Macmillan.
- Bermejo, F., La ética del trabajo social, Bilbo: Desclée de Brouwer, 2002.
- Bordes Solanas, M., 2011, Las trampas de Circe: Falacias lógicas y argumentación informal, Madril: Cátedra.
- Cassirer, E., 1944, Antropología filosófica, Madril: FCE, 1983.
- Cortina, A., Martínez, E., 2001, Ética, Madril: Akal.
- Gibbs, L., Gambrill, E., 2002, Critical Thinking for Social Workers: Exercises for the Helping Professions, Thousand Oaks, CA: Pine Forge Press.
- Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusia, 2012, Gizarte langintzako kode deontologikoa.
- Hollis, M., 1998, Filosofía de las ciencias sociales, Bartzelona: Ariel.
- Horn, T., 2011, Is It Ethical? 101 Scenarios in Everyday Social Work Practice. A Discussion Workbook, Harrisburg, PA: White Hat Communications.
- Howe, D., 1999, Dando sentido a la práctica, Granada: Ed. Maristán.
- Morán Carrillo, J. M., 2007, Fundamentos del trabajo social: trabajo social y epistemología, Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Reamer, F. G., 2006, Social Work Values and Ethics (hirugarren argitaraldia), New York: Columbia University Press.
- Webb, S.A., 2006, Social Work in a Risk Society: Social and Political Perspectives, Basingstoke; New York: Palgrave Macmillan.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- Ander-Egg, E., 1996, Introducción al trabajo social (bigarren argitaraldia), Madril: Siglo XXI.
- Bowen, T., Kemp, G., 2010, Critical Thinking: A Concise Guide (hirugarren argitaraldia), Londres; New York: Routledge.
- Cassirer, E., 1923-29, Filosofía de las formas simbólicas, Mexiko, DF: FCE, 1979.
- Gray, M., Webb, S. A. (argit.), 2010, Ethics and Value Perspectives in Social Work, Houndmills, Basingstoke, Hampshire; New York: Palgrave Macmillan.
- Pinker, S., 2003, La tabla rasa. La negación moderna de la naturaleza humana, Bartzelona: Paidós.
- Reamer, F. G., 1993, The Philosophical Foundations of Social Work, New York: Columbia University Press.
- Reamer, F. G., 2009, The Social Work Ethics Casebook. Cases and Commentary, Washington, DC: NASW Press.
- Rosenberg, A., 1995, Philosophy of Social Science (bigarren argitaraldia), Boulder, CO.: Westview Press.
- Salcedo Megales, D., 1998, Autonomía y bienestar: la ética del trabajo social, Granada: Comares.
- Thomson, A., 2009, Critical Reasoning: A Practical Introduction (hirugarren argitaraldia), Londres; New York: Routledge.
- Ursua, N., González, J. D., 2006, Introducción a la filosofía de las ciencias humanas y sociales, Mexiko, DF: Ediciones Coyoacán.

### Aldizkariak

Journal of Social Work Values and Ethics:

<http://www.socialworker.com/jswve/>

### Interneteko helbide interesgarriak

Stanford Encyclopedia of Philosophy:

<http://plato.stanford.edu/>

### OHARRAK